



POSTA BIDEZKO BOTOA

Posta bidezko boto-eskaerak bi urrats ditu:

1.- BOTOA ESKATZEA.

Hautesleren batek aurreikusten badu bozketa-egunean ez dela egongo botoa emateko eskubidea duen tokian, posta bidez eman ahal izango du botoa, aldez aurretik bere hauteskunde-mahaiari jakinarazita. Jakinarazpen hori egiteko epea hurrengo hau da: hauteskunde-deialdia egin eta hurrengo egunetik aurrera eta bozketa egin baino bost egun lehenago arte. Eskabide-eredua Sailaren web-orrian argitaratuta dago <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/>

Eskabideak helbide honetara bidaliko dira:

Hauteskunde-mahaia:..... Lurraldea:
Sindikatuetik Harremanetarako Zerbitzua
Hezkuntza Saila
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Komunikazioa posta-bulegoen bidez egingo da. Posta bidezko botoa eskatzeko eskaera gutunazal ireki batean aurkeztu beharko da, posta-funtzionarioak data jarri eta sinatu dezan ziurtatu aurretik. Interesdunak nortasun-agiri nazionala erakutsi beharko du, bere datu pertsonalak eta bi dokumentuen sinadurak bat datozela egiaztatzeko.

Eskatzailea hautesleen zerrendan dagoela egiaztatuta, Mahaiak eskaera idatziko du eta boto-paperak eta botoa sartzeko gutun-azala bidaliko zaizkio.

2º. BOTOA DAGOKION IKASTETXEKO HAUTESKUNDE-MAHAIRA BIDALTZEA.

Hautesleak aukeratzen duen boto-txartela bidalitako gutun-azalean sartuko du, eta gutun-azal hori itxi egingo du. Gutunazal hori, aldi berean, NANaren fotokopiarekin batera, beste gutun-azal handiago batean sartuko du, eta **IKASTETXEKO HAUTESKUNDE-MAHAIRA** bidaliko du posta ziurtatuz

Bozketa amaitu ondoren jasotzen bada hauteskunde-korrespondentzia, ez da botoa zenbatuko, eta hauteslea ez da boto-emailatzat hartuko. Ireki gabeko gutun-azala suntsitu egingo da, eta horren berri jasoko da.

Hala eta guztiz ere, posta bidezko botoa aukeratu duen hauteslea hauteskundearen egunean bertan badago eta botoa aurrez aurre ematea erabakitzen badu, horrela adieraziko du Mahaiari. Mahaiak, botoa eman ondoren, postaz bidali duena emango dio, jaso badu, eta, ez badu jaso, jasotzerakoan suntsituko du.